

Prensa oharra

Nota de prensa

Abegi Etxearen eranskina berritzeko proiektua onartuta

Helburua da eraikina egokitzea familia osoen aldi baterako harrera-lekua izateko

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Abegi Etxea gizarte harrerako zentroaren eranskina eraberritzeko exekuzio proiektua. Donostiako alkate Eneko Goiak azaldu du, helburua dela Abegi Etxearen eranskina berritzea eta familia osoen aldi baterako harrera-lekua izateko egokitzea.

Proiektua Jorge López Tubia arkitektoak idatzi du eta 232.631 euroko aurrekontua du. Eta proiektuan aurreikusten da eranskina delako eraikina berritzea 3 familia-logela independente egiteko - horietako bat egokituta –, hain zuzen ere, komun propioa izango duten logelak. Era berean, arropa garbitzeko eremu partekatua izango dute. Hortaz, instalazio horiek aldi baterako erabiliko dituzten familia osoek euroen familia-bizitza garatu ahal izango dute eremu intimoena bertako kide ez diren pertsonekin partekatu gabe.

Logela bakoitzak sarrera propioa izango du eraikinaren mendebaldetik, eta gainera, eraikinak eremu bat izango du haur jokoetarako zein egoteko.

Egun, Abegi Etxearen eranskinak 3 logela ditu literekin, gune komun bat sukalde-jantokiarekin, 2 baino gela, dutxa bat eta erabiltzaileen ekipajea gordetzeko kontsigna bat. Hortaz, proiektu berriari esker, egoera zaurgarri ezberdinak bizi dituzten familien egonaldia erraztu nahi da.

Sarriegi plaza

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Construcciones Moyua SL enpresari esleitzea Sarriegi plaza zolatzeko proiektuaren lehen jarduera egiteko kontratua, hain zuzen ere, plaza berrantolatzeko lanen kontratua.

Egin beharreko obra honakoa da: “Danborrariaren Monumentua” deritzona dagoen erdiko parterra kentzea, beste eremu batera eramateko, eta plazaren erdiko farolaren azpiko idulkia kentzea. Horrek guztiak, plaza osoa birzolatzea eskatuko du.

Esleipen prezioa 130.951 eurokoa da, eta lanak egiteko epea, hilabetekoa izango da.

Prensa oharra

Nota de prensa

Ibai parkea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Ibai Parkea eta Lugañene pasealekua 27 lotzeko proiektuaren obrak kontratatzeko espedientea. Espediente honek aldaketa jasan du materialen kostuen handitzea dela eta aurrekontua handitu behar izan delako. Hortaz, aurrekontu berria 225.538 eurokoa da, hau da, martxoan onartutakoa baino %19,59 handiagoa. Enpresa esleipendunak 3 hilabeteko egikaritze epea izango du lanak egiteko.

- **1. ardatza edo Ardatz nagusia:** Lugañene aldea (zehazki, 27. poligonora sartzeko biribilgunea eta Martutene pasealekua lotzen dituen lotuneko espaloia) lehendik dagoen oinezkoentzako eta txirringarritasunentzako ibilbidearekin lotzen du.
- **2. ardatza:** 1. ardatzeko adar bat da, Parfer eraikinaren atzealdean dagoen pasabidearen hegoaldeko estriboan du amaiera, eta Txomin ibai-parkearekin lotzen da.

Hobekuntzak Altzan eta Larratxon

Tokiko Gobernu Batzordeak hainbat proiektu onartu ditu Altza eta Larratxoko segidako eremuetan espaloiak eta irisgarritasuna hobetzeko:

- Lurzoruak berritzea **Larratxo pasealekua 26ko atzealdean:** espaloiak berrituko dira, aparkalekuak berrantolatuko dira, eta dauden hesi arkitektonikoak kenduko dira. Jarduketa honek 95.603 euroko aurrekontua du eta bi hilabeteko exekuzio epea.
- Irisgarritasuna hobetzea **Larratxo Pasealekua 80.ean:** hesi arkitektonikoak kenduko dira eta arrapala berria egingo da Larratxo Pasealekua eta 80.zenbakiko etxebizitza-eraikina arteko oinezkoentzako bideen irisgarritasuna hobetzeko. Jarduketa honek 168.733 euroko aurrekontua du eta 2 hilabeteko exekuzio epea.
- Irisgarritasuna hobetzea **Roteta Goikoa kalea eta Altza pasealekuaren** artean: hesi arkitektonikoak kenduko dira, eremua berrantolatuko da espaloiak eta atsedeen guneak berrituz, eta hainbat arrapala egingo dira bi kaleen arteko oinezkoen irisgarritasuna hobetuz. Jarduketa honek 88.593 euroko aurrekontua du eta hilabete eta erdiko exekuzio epea.

Donostian, 2022ko urriaren 18an